


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHUraiko EKIPAMENDU ZIENTIFIKOAREN ETA  
FUNTS BIBLIOGRAFIKOEN EROSKETA ETA  
BERRITZEA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2016)**

## **ATARIKOA**

Ikerketa bultzatzea eta garatzea dira unibertsitate jardueraren ardatzetako bat.

Ekintza honen helburua ekipamendu espezializatua areagotzea eta ikertzaileen esku jartzea da, era honetara, ikertaldeek gaitasun zientifikoa eta teknologikoa handituz eta tamaina txiki eta ertaineko ekipamenduaren sorkuntza eta mantentze lana sustatuz.

Xede honetarako 500.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako programa-kontratuaren barruan "Ikerkuntza sustatu" ekintzan, 1.1. lerroan, Ikerketa Proiektuak, tadeak eta ekipamendu zientifikoa".

### **1. oinarria.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Honako deialdi honen helburua da UPV/EHUren sail eta institutuak ikertaldeek eta Ikerkuntzarako zerbitzu orokorrek (SGIker) ekipamendu zientifikoa eta funts bibliografikoak erostea.

Materiala ikerketa proiektuak garatzeko erabiliko da, honako helburu hauek betetzeko:

- Ekipamendu moderno eta eraginkorra eskuratzea.
- Oraingo ikerketa ildoetarako balio ez duelako edo, kasurik txarretan, deskatalogatuta egoteagatik zerbitzu teknikorik ez daukalako zaharkituta geratu den ekipamendua berritzea.

### **2. oinarria.- MODALITATEAK**

Laguntzak honako helburu hauetarako emango dira:

- A. Ekipamendu zientifikoa berria erostea. Modalitate honetan, eska daitekeen gehienezko diru laguntza 60.000 eurokoa izango da. Talde honetan ez da sartzen ekipamendu informatiko arrunta (ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, inprimagailuak, eskanerrak, eta abar).
- B. Bost urtetik gorako ekipo zientifikoa zaharkitua berritzea eta, bereziki deskatalogatuta dauden ekipoak eta gaur egun erosiz gero 20.000 euro baino gehiago balio izango luketenak. Modalitate honetan, eska daitekeen gehienezko diru laguntza 60.000 eurokoa izango da.
- C. Funts bibliografikoak edo datu baseak erostea, ikerketa proiektuak egiteko behar diren liburu multzo, bilduma edo datu baseak sail edo institutuen ohiko funtsekin ordaindu ezin direlako, arlo horretako funts bibliografikoen batez besteko prezioa gaitzen dutelako edo UPV/EHUko Bibliotekan ez daudelako. Inola ere ez da diru laguntzarik emango aldizkarietako harpidetzak egiteko. Gehienez 10.000 euroko diru laguntzak emango dira.

Kasu guztietan, A, B zein C modalitateetan, eskaera egiten duen ikertaldeak eskatutako ekipamendua erosteko finantziatorik baduela frogatu beharko du, gutxienez ekipamenduaren edo funts bibliografikoaren BEZ gabeko kostuaren % 15.

### **3. oinarria. DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK**

Ezin izango dituzte laguntza hauek eskatu ondorengo egoeretako batean dauden pertsonak:

- 3.1. Epai irmo bidez diru laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izatea.
- 3.2. Diru laguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean ez izatea.
- 3.3. Ebazpen irmo bidez lege honen edo beste lege batzuen arabera diru laguntzak jasotzeko aukera galdu izatea.

### **4. oinarria.- ONURADUNAK**

Ondokoak izan daitezke honako deialdi honetan aurreikusten diren laguntzen eskatzaile eta onuradun:

- 4.1. Ikerkuntzarako zerbitzu orokorretako (SGIker) unitateak.
- 4.2. UPV/EHUrekiko lan lotura motari buruzko baldintzaren bat (4.2.1 atala) eta taldeak osatzeko baldintzak (4.2.2 atala) betetzen dituzten ikertzaileek osatutako ikertaldeak.

#### **4.2.1. UPV/EHUrekiko lan lotura motak:**

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUra atxikita dauden Ikerbasque programako langileak eta irakasle atxikiak.
- b. Langile ez iraunkorrak (Ramón y Cajal programako ikertzaileak eta irakasle atxikiak izan ezik); horiei dagokienez, UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak deialdi hau egin ondorengo urteko abenduaren 31ra artekoa izan behar du.

Horren harira, langile ez iraunkortzat hartuko dira, beste batzuen artean:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten langileak.
- ii. Prestatzen ari diren eta praktika aldian dauden ikertzaileak.
- iii. UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzaren deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak.

Prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileen kasuan, beren doktorego tesiaren zuzendariak proiektuaren taldeko kide izan behar du, eta beren kontratuak ezin du 2017ko ekainaren 30a baino lehen amaitu.

- c. Ikerketako laguntzaileak, unibertsitatearen araudian ezarritako prozedurei jarraiki.

#### **4.2.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Gutxieneko ikertalde eskatzailea 4.2.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzailek osatuko dute.

b. Eskaeraren koordinatzaileak 4.2.2.a atalean adierazitako kolektiboetako izan behar du, doktore titulua izan behar du eta arduraldi osoan aritu behar du.

Salbuespen gisa, ez da beharrezkoa izango arduraldi osoaren eskakizuna betetzea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak horren aldeko txosten arrazoitua egiten badu, ikertzailearen maila zientifikoa kontuan hartuta.

4.3. Ikertzaileek ezin izango dute aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartu.

4.4. Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu 2015eko deialdian onuradun izan diren ikertaldeetako ikertzaileek.

4.5. Aurreko 4.3 eta 4.4 ataletan ezarritako mugak ez zaizkie aplikatuko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako aholkulariek edo ikertzaile laguntzaileek aurkeztutako ekipamendu eskaeretako ikertzaile nagusiei.

## **5. oinarria.- DIRU LAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA ZENBATEKOA**

5.1. Eskaerak ekipamendu osoak lortzeko dira eta ikertalde bakoitzak eskaera independente bat aurkeztu beharko du.

Eskaeran eskatutako ekipoa jartzeko tokia badagoela adierazi beharko da, baita ekipoauren urteko mantentzea gutxi gorabehera zenbat kostatuko den ere, bermearen epea amaitzen denean.

5.2. Eskaturiko diru laguntzaren zenbatekoa ez da ekipamenduaren edo funts bibliografikoaren BEZ gabeko kostu osoaren % 85etik gorakoa izango.

Ikertalde eskatzaileak eskaera egiteko unean baterako finantziatorako baliabiderik baduela frogatu beharko du, ondorengoaren arabera:

- a. Ekipamendua finantzatzeko funtsak gastuen edozein kapitulutan egon daitezke eta, eskaera jasotzean, blokeatu egingo dira kontabilitatean.
- b. Ez da onartuko beste deialdi batean egindako finantziazio eskaeretatik ustez lortuko diren funtsak jartzea.
- c. Ekipamendua finantzatzeko funtsen jatorri diren deialdiek xede honetarako erabili ahal izatea onartu behar dute.
- d. Ez da baterako finantziaziozat hartuko aurretiaz dagoen ekipamendua, bere izaera dela eta, erosi nahi denaren osagarri izan daitekeena.

5.3. Ekipamenduak egokiak eta beharrezkoak izango dira ikertalde eskatzaileak hasita dituen edo egingo dituen ikerketetarako.

5.4. Funts bibliografikoak erosteko eskaeretan, C modalitatekoetan, obren izenburuak, egileak, argitaratzaileak eta, oro har, obrak identifikatzeko datu guztiak eman beharko dira.

Funts bibliografikoaren eskaerarekin batera, UPV/EHUko Bibliotekaren ziurtagiri bat aurkeztuko da, eskatutako funtsak deialdiaren 2.C oinarrian ezarritako zehaztapenekin bat datozela esanez.

5.5. Deialdi honen bidez emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira bestelako laguntzekin, haien ezaugarriak edozein direla ere eta alde batera utzita zein erakundek eman dituen, baldin eta laguntza guztiak batuta erosketaren kostua

gainditzen ez badute. Ikertalde eskatzaileak helburu bererako zein laguntza lortu dituen adierazi beharko du eta gorago azaldutako baldintza betetzeko diru laguntzari egin dakizkiokeen murrizketak onartuko ditu.

5.6. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira argi eta garbi honako hauek:

- a. Obra zibila, aire egokiturako aparatuak eta altzariak. Horiek, izatekotan, unibertsitateko campusetako gerenteordetzen bidez bideratu beharko dira.
- b. Ohiko ekipamendu informatikoa unibertsitateko irakasleen jarduerak garatzeko, informazio eta komunikazioaren teknologien Gerenteordetzaren bidez bideratu behar baitira.

5.7. Aldiz, ekipamendu informatikoa finantzatu ahal izango da, ikerketarako ezinbestekoak badira. Halako ekipamendua finantzatzeko eskaerarekin batera, beharraren justifikazio tekniko egokia aurkeztuko da, baita behar horrek ikerketa proiektu zehatzekin duen zerikusia ere. Hori guztia IKTen Gerenteordetzako zerbitzu teknikoek aztertu ahal izango dute, deialdi honi hel diezaioketen ala ez erabakitzeko.

5.8. Eskatutakoaren antzeko ezaugarriak eta aplikazioa dituen ekipamendua baldin badago SGIker unitate batean, zergatik berri behar den zuritu behar da. Hala egin ezean, eskaera baztertu egingo da.

## **6. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA**

6.1. Ikerketaren gestioko zuzendaritzari dagokio deialdi honetako diru laguntzak kudeatzea.

6.2. Eskaerak ikertzaile nagusiak egin behar ditu eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzendu behar zaizkio. Ondoren, UPV/EHUko Erregistro orokorrean, Leioan (Bizkaiko Campusa), campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan aurkeztu behar dira. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako eran ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

6.3. Inprimaki ereduak Ikerketaren arloko errektoreordetzaren webgunean eskura daitezke: <http://www.ikerkuntza.ehu.eus/>

6.4. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez 15 egun baliodunera, Ikerketaren arloko errektoreordeak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian. Bertan eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuko du. Hamar eguneko epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epea igarotakoan, akatsak epe horretan zuzendu ezean, eskaera bertan behera utziko da, ebazpen bidez, eta horren berri emango zaio interesdunari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71.1 artikuluan adierazitako eran.

6.5. Dagokion eskaerarekin batera, laguntza eskatu duten guztiek sinatutako zinpeko adierazpen bat aurkeztuko da, 3. oinarrian adierazitako egoeretakoren batean ez dagoela adieraziz.

## **7. oinarria.- ESKAERAK EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Eskaeraren dokumentazioa paperean eta bertsio elektronikoan aurkeztu beharko da, 7.1 eta 7.2 puntuetan adierazten den bezala:

7.1. Paperean honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a. Memoria-eskaera: diru laguntza eskaera, inprimaki normalizatua erabilia; bertan, eskaturiko ekipamenduaren erabilerari buruzko memoria egingo da eta ekipamendu hori zer ikerketa proiektutan, nola abiatutakoetan hala eskaturikoetan, erabiliko den adieraziko da espresuki.

Eskaeran ekipamenduaren ezaugarri teknikoak deskribatu behar dira, marka edo modelo zehatzik jarri gabe; deskribapen hori ekipamenduaren hornikuntza kontratatzeke prozesurako beharrezko dokumentazioa prestatzeko erabiliko da.

- b. Ikertalde eskatzaileko ikertzaile nagusiari dagokion sailaren edo institutuaren baimena: saileko kontseilu edo institutuko kontseiluaren aldeko akordioa. SGIker unitateen kasuan, SGIker-eko zuzendaritzaren alde aurretiko baimena aurkeztu beharko da.
- c. Baterako finantziazioaz arduratzen den unitate organikoko ikertzaile nagusia ikertaldeko kide ez denean, funtsak erabili ahal izateko baimena aurkeztu beharko da.
- d. Eskaintza edo proformako faktura: ekipoa hornituko duen merkataritza enpresaren proformako faktura, eskaturiko materialaren ezaugarri teknikoak eta prezioa, BEZ barne, azalduz.
- e. Ondare baxa egiteko baimena: B modalitateko eskaeren kasuan, laguntza jasoz gero UPV/EHUren inbentario ofizialetik ekipo zaharkitua erretiratzeko baimena aurkeztu beharko da. Dokumentu hau laguntza eskatu duen eta ekipamendu zaharkitua kokatuta dagoen sail edo institutuko zuzendariak sinatu beharko du.
- f. Dagokion eskaerarekin batera, laguntza eskatu duten guztiek sinatutako zinpeko adierazpen bat aurkeztuko da, 3. oinarrian adierazitako egoeretakoren batean ez dagoela adieraziz.

7.2. Papereko eskaerarekin batera, formatu digitalean aurkeztuko dira, CD, DVD edo USB biltegi-ragailu batean, honako dokumentu hauek:

- a. Memoria-eskaera: Diru laguntza eskaera, inprimaki normalizatua erabilia. Artxiboaren izena: "Eskaera osoa.pdf"
- b. Eskaeran agertzen diren ikertzaileen curriculumak: Gehienez, ikertaldeko hiru kideren curriculum osoa (ikertzaile nagusiarena eta beste bi ikertzailerena), inprimaki normalizatuaren arabera. Artxiboaren izena: "CV-ikertzailearen deiturak.pdf"
- c. Eskaintza edo proformako faktura. Artxiboaren izena: "Aurrekontua.pdf"  
PDF formatuko fitxategiak besterik ez dira onartuko.

## 8. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartzean irekiko da eta 2016ko apirilaren 8ra arte egongo da irekita.

## 9. oinarria.- EBALUAZIOA

9.1. Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalak balioetsiko ditu eskaerak, eskaeraren arduraduna den ikertaldeko ikertzaile nagusiak aukeratutako ebaluazio arloan.

9.2. Diru laguntzak esleitzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

### 9.2.1. Ekipamenduaren beharraren justifikazioa (0-45 puntu)

- a. Erosi edo berritu nahi den ekipoaren erabilerari buruzko informazioa. Esaterako, erabilera maila, erabili izan duten ikertzaileak, inguruan diren antzeko ekipoak, eta abar.
- b. Eskaturiko ekipoak ikerketa ildoarekiko, ikerketan lortutako helburuekiko eta ikerketaren jarraipenarekiko duen egokitasuna eta premia.
- c. Eskaturiko ekipamendurekin edo azpiegiturarekin garatu beharreko jardueren bidez lortu nahi diren emaitza zientifikoak eta horiek gizarte eta ekoizpen inguruan izango dituzten ondorioak.
- d. Beste ikertalde batzuekiko partekatutako erabilera.

### 9.2.2. Ikertaldearen ibilbide zientifikoa (0-45 puntu)

- a. Eskaturiko azpiegiturak potentzialki ukituriko ekipoek alde aurretik lortutako emaitza zientifikoak.
- b. Ikertzaile eskatzaileetako hiruren curriculumak soilik.
- c. Ikertaldeek parte hartu eta diru laguntzarik lortu duten ikerketa proiektuak.

### 9.2.3. Batera finantzatzeko ahalegina (0-10 puntu)

Ebaluazio prozesuan, faktore esanguratsua izango da elkarrekin finantzatzeko aukera, baldin eta deialdian ekipamendua erosteko eskaturiko gutxieneko kopurutik gorakoa bada.

Atal honen balorazioan honakoa izango da kontuan:

- Kofinantzazioa  $\leq$  %15 : 0 puntu
- %15  $\leq$  kofinantzazioa  $\leq$  %45 : [kofinantzazio %- 15/3]
- Kofinantzazioa  $>$  45% : 10 puntu

## 10. oinarria.- EBAZPENA

10.1. UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak, egindako balioespenei buruzko txostenak ikusita, finantzatu beharreko eskaeren zerrenda lehenetsia osatuko du, gomendatutako aurrekontuak barne, eta Ikerketaren arloko errektoreordeari igorriko dio, beronek egin beharreko ebazpena egin dezan.

10.2. Onartutako edo baztertutako eskaeren erantzuna eta onartutako zenbatekoak ikertzaile nagusi bakoitzari jakinaraziko zaizkio Ikerketaren arloko errektoreordearen ebazpenen bidez. Ebazpenarekin batera, eskaeraren ebaluazioa (Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalak egina) ikertzaile nagusiari bidaliko zaio, eta baztertutako eskaeren kasuan, ezezkoaren arrazoiak jakinaraziko zaizkio.

10.3. Diru laguntzen zenbatekoa ebaluazio irizpideen eta aurrekontuak ematen dituen ahalbideen arabera izango da.

10.4. Emaniko diru laguntza eskaturikoa baino txikiagoa denean, talde eskatzaileko ikertzaile nagusiak Ikerketaren gestioko zuzendaritzari finantziario osagarria zein organika edo organiketan dagoen jakinarazi beharko dio, 10 eguneko epean (alegia, eskaerari gehitutako aurrekontuaren eta hasierako baterako finantziarioa eta emandako laguntza gehitzearen arteko aldea). Bestela, eskaera baztertu egingo da.

10.5. Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, eman duen organoari berari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 116. eta 117. artikuluekin bat etorrira.

Era berean, aipatu ebazpenaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auzien dagokion epaitegian.

## **11. oinarria.- ESLEIPENA**

11.1. Esleipenik lortuz gero, berori eskaturiko ekipamenduari egokituko zaio eta emandako diru laguntza orientagarria izango da, besterik ez.

- a. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak ekipoa zenbatetsitako kostua baino merkeago erosiko balitz, lortutako murrizketa bi finantziarioei aplikatuko zaie, betiere, eskaeran adierazitako baterako finantziario portzentajea mantenduta.
- b. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak ekipoa zenbatetsitako kostua baino garestiago erosiko balitz, aldea talde eskatzaileak jarri beharko du.

11.2. Diruz lagundutako ekipamendua Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erosiko du zuzenean, betiere, UPV/EHUko Gerentziak eta Kontratazio eta erosketa zerbitzuak ezarritako arauari jarraituz.

11.3. Diruz lagundutako funts bibliografikoak UPV/EHUko Bibliotekaren bidez erosiko dira. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak Bibliotekari bidaliko dio eskaera.

11.4. Ordezkatutako ekipa zaharkituak Ikerketaren arloko Errektoreordetzara atxikiko dira. Ekipoaren egoeraren arabera eta irakaskuntzan izan litzakeen aplikazioak aintzat hartuta, Errektoreordetzak behin betiko kentzea edo irakaskuntzarako zein bestelako erabileraren batera bideratzea erabakiko du.

## **12. oinarria. SEGIMENDUA**

12.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei segimendua egiteko prozedurak.



12.2. Erosteke izapideak behar beste lehenago hasi beharko dira erosketa espedientea 2016ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko baita.

12.3. Ikerketaren gestioko zuzendaritzak ezarriko ditu, ekipamendua erosteko prozesuaren hasieran, egin beharreko kontabilitate izapideak, UPV/EHUUn erabilitako kudeaketa ekonomikoko sistemak jarritako baldintzen arabera.

### **13. oinarria. DIRU LAGUNTZAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

13.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere, helburua betetzen bada, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian eman zen laguntzaren aldeko ebazpena aldatzeko ebazpena ekar lezake eta, horren bidez, emandako laguntza murriztea edo kentzea.

13.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposamena edo txostena eginda, ebazpena emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari jarraiki. Ebazpena ekipamendua erosteko laguntza eskatu zuen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio. Jakinarazpenean laguntza zenbatean murriztu den, baliogabetutako laguntzaren ordezeko finantziazioa aurkezteko zer epe dagoen eta, hala badagokio, ekipamendua kontratatzekeo prozesua baliogabetu beharra dagoen ala ez adieraziko da.

13.3. Ondorio honetarako, honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekipamendua erosteari uko egiten dionean, laguntza horretarako eman bazen ere.
- b. Laguntza eman ondoren edo ekipamenduaren kontratazio prozesuan zehar, eskaeran adierazitako ekipamenduaren oinarritzko ezaugarriak aldatzen direnean, ekipamendu ezberdina dela interpreta badaiteke.

Nolanahi ere, ezaugarriak lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen prozesuaren parte gisa aldatzen badira, eskaintza onartzeko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren oniritzia beharko da, egindako aldatetako ekipamenduaren ezaugarriak hobetzea edo ekipamendua aldatzea dakarten erabaki ahal izateko.

- c. Ekipamendu bererako beste iturri batetik diru laguntza jasotzen denean aldezturik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- d. Deialdi honetako oinarriak –batzuk edo bat ere ez– betetzen ez direnean.
- e. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- f. Gastu bera aurrekontuko atal organiko batean baino gehiagotan egozteak.
- g. Deialdi honek diruz laguntzen ez duen gastuak egitea.
- h. Proposatutako ekipamendua UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatutako prozedurak urratuz erostea.

Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo

edozein erosketa eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, eta une horretara arte erabili gabeko finantziazioa kenduko da.

#### **14. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztian diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari lotuko zaio; besteak beste, diru laguntzak itzultzeari eta arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko xedapenei.

Aurreko ondorioetarako, diru laguntzei buruzko lege orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla ulertuko da.

#### **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUk darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Euskarazko dokumentazioa euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu behar dutela ikusiz gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetza eskatzailearekin harremanetan jarriko da eta zer aukera dauden azalduko dio:

- a. Eskatzaileak berak epe luzeago bat jartzea dokumentazioa gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak enpresa espezializatu baten esku uztea itzulpena; hala eginez gero, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena baliozkotzeko, ebaluatzaileei bidali baino lehen.

#### **AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Interesdunak deialdiaren eta horren oinarrien aurka egin dezake, bi hilabeteko epean, argitaratzen direnetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legean ezarritako epeen barruan eta forman.

#### **AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA**

Deialdi hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Leioan, 2016ko martxoaren 10ean

Fernando Plazaola Muguruza  
Ikerketaren arloko errektoreordea